

Komunikazioaren izenburua

Dokumentu hau **Haur eta gazte transexualitateari buruzko Naizen I. Nazioarteko Biltzarrerako** komunikazio laburpenak bidaltzeko txantiloia da.

Komunikazioaren laburpenak **400 eta 1000 hitz bitarteko luzera** izan behar du (erreferentziak kontuan hartu gabe). Laburpena **gaztelaniaz edo ingelesez** bidali ahal izango da. **Word dokumentu batean** aurkeztuko da, txantiloia honetan erabilitako testu-ezaugarrien arabera formatatuta. Times New Roman tipografia erabiliko da. Laburpenaren gorputzan 12 tamainako letra erabiliko da; izenburuan 14 tamainakoa, lodia eta erdian kokatua. Dokumentuan ez da egileei buruzko inolako daturik txertatuko (egileen datuak komunikazioak bidaltzeko formularioan sartuko dira). Laburpena ~~2025eko otsailaren 7a baino lehen~~ **2025eko otsailaren 14a baino lehen** bidali beharko da.

Komunikazioen bidalketa

Komunikazio-proposamenak bidali ahal izango dira, eta onartzen badira, ahoz eta modu presentzialean azaldu beharko dira Biltzarrean.

Aurkeztutako komunikazioek bat etorri behar dute proposatutako lau ildo tematikoetako batekin: haurtzaroak (trans haurren bizipen eta beharrak eta haien trantsitu-prozesuak, autoestimua, ongizatea, gorputzen ospakizuna); nerabezaroak (trans nerabeen bizipen eta beharrak eta haien trantsitu-prozesuak, interes berezia zuzenduz gai hauetara: gorputzen bizipena, plazerak, sexualitateak, erotikak, maitasunak); arreta eta akonpainamendua (edozein alor profesionaletatik: osasuna, hezkuntza, gizarte-lana... eta erakunde eta elkarteetatik); gizartea eta kultura (gizarte-ingurunea, sinesmenak, aurreiritziak, diskriminazioak, indarkeriak, balioak, sostengu-sareak, erreferenteak, aktibismoak, legeak, hedabideak, sare sozialak)

Komunikazioek honako hau jaso dezakete:

- Ikerketa zientifikoko lanak: Kasu horretan, honako hau sartu beharko dute barne: Oinarria, Helburua, Metodologia, Emaizak, Eztabaida eta Konklusioak. Atal horiek egokitu ahal izango dira, beharrezkoa izanez gero, azterlanaren ezaugarrien arabera.
- Esperientzia profesionalak eta/edo pertsonalak: Kasu horretan, haien deskribapen zehatza egiten duen egitura librea izan dezakete

Bi kasuetan, erreferentzia bibliografikoak gehitu daitezke, APA7 formatuan (American Psychological Association, 2020). Erreferentzia horiek ez dira kontabilizatuko gutxieneko eta gehieneko hitz kopururako.

Komunikazioen balorazioa eta onarpena

Ebaluazio-batzordeak modu anonimoan baloratuko ditu komunikazioak, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Irizpide formalak: hitz kopurua; hizkuntzaren zuzentasuna; txantiloira egokituta egotea; erreferentziak, halakorik egonez gero, APA7 formatuan; etab.
- Beste irizpide hauek: egokitasuna, egokitzapena, ekarpenaren balioa, kalitatea, etab.

Ebaluazio-batzordeak komunikazioak onartzeari edo ez onartzeari hartzen duen erabakia 2025eko martxoaren 21a baino lehen jakinaraziko da.

Ez da beharrezkoa Biltzarrerako erregistratzea erabaki hori ezagutu aurretik. Erabakia aldekoa izanez gero, komunikazioaren onarpena behin betikoa izan dadin beharrezkoa izango da beraren autoreetako bat -gutxienez- Biltzarrerako erregistratzea, komunikazioa Biltzarrean modu presentzialean azaltzeko.

Komunikazioen aurkezpena

Onartutako komunikazioak modu presentzian eta ahoz aurkeztuko dira Biltzarraren komunikazioan Saioan. Aurkezpenak 10 minutuko iraupena izango du, eta gero 5 minutuko eztabaida egongo da. Aurkezpena egingo da laburpena bidaltzeko erabili den hizkuntza berean. Biltzarraren hizkuntzak gaztelania eta ingelesa izango dira, eta Biltzar osoan aldi bereko itzulpen-zerbitzua egongo da bi hizkuntzen artean.

Akreditazioak eta onartutako komunikazioen argitalpena

Biltzarraren ostean, parte-hartzea KOMUNIKAZIO gisa akreditatuko zaie komunikazioaren sinatzaileei. Biltzarrean aurkeztutako komunikazioak bilduma digital batean sartuko dira, eta bilduma hori Biltzarraren “Aktak” izenburupean argitaratuko da. Akta horiei ISBN bat eta dagokien Legegordailua asignatuko zaizkie, eta Dialnet-en indexatuko dira, haien hedapena handiagoa izan dadin. Onartutako laburpenetan aurkeztutako lanetik abiatuta garatutako edozein testu geroago argitaratu ahal izango da, inolako murrizketarik gabe, aldizkari zientifikoetan edo beste hedabide batzuetan.

Erreferentziak

American Psychological Association. (2020). *Publication manual of the American Psychological Association* (7th ed.). American Psychological Association. <https://doi.org/10.1037/0000165-000>